

NI (besterik gabe)

Narua Ogando

Lekeitio, 16 urte

Jakin badakizu batzuk beste batzuk baino lehenago ikarutzen garela. Jakin badakizu batzuk beste batzuk baino bereziagoak garela izatez... Ausartek edota bihotz gogorra duten gizasemeek ez dakite koldarrok erakuts genezakeen adorea zenbaterainokoa den... Ez dakite eta ez dute jakin nahi. Zergatik ote?

Bizitzan, jaiotze batera galtzaile bilakatzen garen susmoa dut. Azken finean, hiltzeko jaiotzen baikarra. Denak dira norbera baino azkarrago! Denak dira norbera baino sendoago! Horregatik, nolabait babestu behar dugu geure burua. Nik, adibidez, idatzi egiten dut babes hori lortzeko.

1997ko azaroaren 21a.

*NOIZ UTZIKO DIDATE NAIZENA IZANTEN?

Nondik hasi? Nola segitu? Ez naiz zuri adierazteko ditudan kontuak (hainbeste baitira.) egoki sailkatzeko gai, barnean sekulako anabasa daukat eta. Aspaldi honetan erdi galduta nabil, noraezean bezala, baina ez dut ulertzen zergatik izan daitekeen, gauzak inoiz baino hobeto baitoazkit (edo joan behar litzaizkidake?). Ez dakit. Ikasketa arloan ondo nabil, betiko antzera (agian, pasa den urtean baino desfasatuago, alferrago, interes falta pittin batez). Koadrilari dagokionez, orain benetako

lagunak dauzkadala esan diezazuket: gustura nago hauekin; naizenagatik onartzen naute (baina ba al dakit nik neuk nor naizen?); edozertaz hitz egin dezaket beraiekin. Etxean baretasuna nagusitu da: Dorleta asteburuetan soilik ikusten dudanez, beraiekin ez dut lehen beste eztabaidatzen; Urkoren inozokeriei aurre egiten ikasi dut (“paso”, eta kitto!); gurasoekin ere orokorrean ez daukat inolako arazorik. Guztia dago bere lekuan.

Hala ere, ez nago pozik. Zulo nabarmena sentitzen dut barruan, zulo ilun eta ezatsegina, zeinak isilpeko bakardade biluzian gero eta gehiago sofriarazten didan. Batzuetan INOR ez naizela iruditzen zait, ezereza, hutsaren hurrengo. Nire iza-tea kolokan jartzen dut, etengabeko zalantzan. Nik badakit NORBAIT naizena, nortasun propioa daukan neska bat; alegia, argia, irudimentsua, ameslaria. Baina dauzkadan kualitateek ez didate ezertarako balio nire inguruko artean (egunero alboan dabilkidan jendeagatik diotsut, orokorki), eta horregatik, norbait horrek askotan ihes egiten dit. Edo, latzagoa dena, neuk uzten diot joaten; egia esan, ez dakit desagertzeko agintzen ez ote diodan. Beraz, denboraldi honetan jira-biraka dabilkidan sentsazioa zera da: jendearen aurrean ez naizela NI, beraiek nahi luketen hori baizik. Orduan ohartzen naiz nire jarrera ergel samarra dela, ahula den orooren jokaera tristea.

Eta ni ez naiz ahula! Ez horixe! Bat-batean, indarrez bete eta neure izaeraz harro egoteko arrazoiak gailentzen zaizkit. Harrotasun hori, ordea, laster

zapuzten da. Kaka zaharra! Non ezkutatu da senti-beratasuna, non errespetua, non konprentsioa? Ezberdintasunak ez al zekarren, ba, aniztasuna? Eta aniztasunak aberastasuna? Nik hala uste nuen. Baina aditzek garbi erakusten duten modura, iraganaz mintzo naiz. Eta iragana joana da.

Gaztea naiz, eta oraindik ez dakit egiazko bizitza zer den, baina iritsiko den unean hemen egongo ote naiz? Ala neuk ere ordurako nire NOR-TASUNAREN eredia jarraituz, leku lasaiago batera alde egingo dut? Bai, badakit hitz hauek gogorrek direna, eta zentzugabeak beharbada. Hala ere, egunetik egunera indar handiagoa dute nigan; ez dut beraien kontra ezer egiterik.

Baikor, ilusioz nagoenean, noizbait, unibertitate garaian edo, jende jatorra ezagutuko dudala pentsatzen dut. Horiek bai, horiek ulertuko naute. Zure modukoak izango dira (jakizu une honetan ni ulertzen nauen bakarretakoa zarela). Hala nahi nuke, behintzat.

Itxaropenak kale egiten didanean, egunen batean, ni jada ez nagoen etorkizun batean, orain idazten dizkizudan berbek minetan iraungo balute, azkenean "konprenitzen" nauen jendea edukiko nukeela, neureak, benetako bizitzan zoriontsu sentiaraziko ninduketela, maitatua nintzatekeela pentsatzen dut. Baina, bertan jaio ez izanaz gainera, ordurako makina bat urte lurpean emanak izango ditut. Irudiz baino ez naute maitatuko, bizirik izan nintzela pairatutako konprentsio ezak hil ninduen honentzat maitatua izatea ezer gutxi izanen dene-

an". (Nahiz eta ez diren nire eleak, guztiz identifikatzen naiz beraiekin).

Kontatu berri dizudanaren aurrean, korapilorik sortu al zaizu sabelalde horretan? Ala arrunta da niri gertatzen zaidana? Esaidazu zerbait, mesedez. Zuganako konfidantzak egoera azaleratzen utzi dit eta urrats ederra izan da niretzat bakardadean sufritzen jarraitu beharrean sentitzen dudana argitara ateratzea. Arren eskatzen dizut: ez zaitez nitaz trufa. Ez dezazula pentsa hiltzorian nagoenik (ezta gutxiago ere!), baina batzuetan bizitzarekiko oso ikuspegi ezkorra izaten dut eta honako hau momentu horietakoa da. Nire intentzioa ez da zuri pena sortaraztea, inola ere. Ez dut errukirik gura! Eskatzen dudana bakarra ulermen apur bat da. Ez iezadazu hutsik egin.

Nire gorabeherak astunak suertatuko zitzaizkizun honezkero. Normala... Hainbeste ni, hainbeste nire, hainbeste niretzat..., azkenean neurekoiegia naizela sinestera iritsiko naiz.

Kasualitatez hasi naiz hau guztia izkiriartzen. Ordenagailu aurrean jarri, eta besterik gabe teklak zapaltzeari ekin diot. Bazen garaia, ezta? Hamaika aldiz hasia nintzen lehenago, barrena lasaitu asmoz zerbait idazten, baina beti zegoen aurrera segitzen uzten ez zidan oztoporen bat (denbora falta, gogogabezia, ikasi beharra...). Gaurkoa, barru-barrutik irten zaidan zerbait izan da zorionez.

Zenbaitetan, hortzemugara begiratu eta bere urruntasunak izua sortarazten didanean, hala pentsatzen dut, itsasoaren bestaldean (edo hemen bertan, batek daki...) norbait nire beldur bera sentitzen ari dela. Eta norbait hori nor den, nolakoa den imajinatzeari ekiten diot. Baina nik ez dut bere egoera irudimenez eraiki gura! Nik bera nahi dut! Aurrez aurre. Edo gutxienez, hur. Orduan konturatzen naiz, ezinezkoa den zerbaiten bila nabilela. Esaerak bila dabilenak aurkitu ohi duela dio; ez dagoena, ez dena, hala eta guztiz, ezin lor daiteke.

Beraz...

Lehen ondorioa: ematen dudan pauso oro aurrera izan beharrean atzera izaten da, leku okerretik okerragora.

Bigarren ondorioa: guztia alfer-alferrikakoa zait.

Hirugarren ondorioa: ezberdina izateak ez du ezertarako balio sinplekeriaz jositako jende artean.

Beraz...

Sofritzera kondenatua nago. Alde guztietatik kolpeak jasotzen segituko dut; urradura ikustezienez gorputza zauriturik utziko didate; ene bihotz ahula apurtzen saiatuko dira; malkoak isuriaraziko dizkidate... Eta, ni, noizbait garai hobeak iritsiko direla pentsatzeak lasaituko nau eta ez dut ezer egiten garai horiek hainbat arinen etor daitezen. Ez, hain nago traumatizatua, ezen jada neure burua ere gutxietsi egiten baitut.

1997ko abenduaren 3a

***OKERRAK ZUZENDUZ.**

Lehengoan esan nizunari bueltak ematen aritu naiz. Gauzak larregi esajeratu nituelakoan nago. Ez dakit. Biktimaren paperean murgiltzeak hori (eta gehiago) eragiten du. Beti aipatu izan didazu horrela jokatzek ez nauela inora eramango, baina arazoak diren baino leunagoak suerta daitezzen, besteei errua leporatzea zoragarria (hau ez litzateke barbarik zuzenena, baina ez dut egokiagorik aurkitzen une honetan) da. Gainera, inor ez mintzearren isilduko banintz, ez nuke isilduko nire mina baizik. (Kantari bati entzun nion behin eta arrazoi du ene uste apalean). Gaizki nengoen, eta nago, baina ez egun hartan beste. Iparra galduta nenbilen. Hainbeste arazo pilatu zaizkit hain epe laburrean...

Aspaldian ez dugu elkar ikusi eta hori nabarmena da (nire kasuan, behintzat, bai). Zuk beltza zuri bihur zenezakeen; zuk itsusia eder bilakatzeko moduak erakutsi zenizkidan; zurekin bizitza bizibizia zen. Ez orain bezala. Argi utzi nahi nizuke ez nagoela zuri inolako kulparik egozten, aitzitik, nik beti eskertuko dizut zurekin igarotakoa igaro izana. Kontua bestelakoa da. Ez naiz ondo esplikatzeko gauza. Arraioa! Urduri nago. Ordenagailuko teklak zapaltzen ditudalarik atzamarrak dardarka dauzkadala kargutu naiz. Ezinegon madarikatu honek ez nau bakean uzten.

Hemen zeundenean zugaran sostenga nintekeen. Niretzako euskarri antzeko zerbait zinen. Problema orori aurre egin niezaion aholkuak ematen zenizkidan. Eta aholkuei jaramon eginez oztopo ugari gainditu nuen. Alabaina, orain ez zaude. Eta nik neure buruarenganako segurtasuna galdu dut. Eta zuk hainbeste gorrotatzen zenuen/duzun biktimakeriara jotzen dut babes bila behin eta berriro. Eta nitaz errukituz, guztia ulergarriagoa zait. Eta negar eta negar egoten naiz aspertu arte, kasik kasik negarrak eraturiko anpulu putzuetan itotzeraino. Beti ere alboan inor ez daukadanean, bakar-bakarrik nagoelarik. Besteekin irudi sendoagoa erakusten dut/erakutsi beharra daukat (zer erremedio?).

Dorleta hor dago, baita Urko ere. Lagunei ere azal niezaieke zer gertatzen zaidan. Edo gurasoei. Zoritxarrez, Dorleta oso materialista da eta ez ninduke konprenituko; beti eman du ahizpa nagusi eta zalantza izpirik bakoaren imajina (beti utzi izan du argi zer nahi duen eta zeintzuk diren bere helburuak). Aurpegira egingo lidake barre. Hark ez daki zer den bihozberatasuna; ez lekike nire lekuan jartzen. Urko, hamar urteko neba mokoia, pailazo hutsa da. Harekin ez dut zer eginik. Lagunak benetan estimutan ditut, baina ez... Ez... Eta ni bizitzen nagoena inork bizi izan ez badu? Edo, aparteko kasutzat hartuko banindute, zer? Ez... Ez zaizkit esamesak laket. Ez nuke jasango beraien ahoetatik niri buruzko iritzi txarrak irteterik. Orduan bai helduko litzaidakeela azkena.

Gurasoek, aldiz, edo psikologo batengana bialduko nindukete edo ez lidakete arnasa hartzen laga-ko, harik-eta ondo nagoela esan arte. Beno, eta amama Bitxori, zer esanik ez! Egunero-egunero hamaika bider joango litzateke elizara amabirjinari kandela piztu eta otoitz egitera.

Konturatu al zara? Zuri edozer adieraz diezazu-keedan bitartean, gainerakoei edozer horretako zati batzuk baino ezin diezazkieket aditzera eman. Kapitulu hau ezabatu eta berri bat hastea posible balitz? Eskatzen hasiz, bizitzaren liburu politago batean parte har baneza...? Pertsonaia alaiagoa banintz...: zoriontsua, polita, ederra, liraina, atsegi-na...? Honekin ez diot nire izakera erabat aldatuko nukeenik, konponketatxo batzuk egingo nituzke. Besterik ez.

Izan nadin neure buruarekin zintzoa! Konponketatxo asko burutuko nuke: goitik behera, ezkerretik eskumara, barrutik nahiz kanpotik. Beraz, orduan, ez nintzateke ni. Ez nintzateke naizena. Ez nintzateke inor. Ez nintzateke ezer.

Ene bada! Nola ailegatu naiz honaino? Nik ari-nagokoan esanak zuzendu gura nituen. Horixe besterik ez. Zakar portatu nintzen besteekin. Ez neukan eskubiderik halakoak botatzeko! Eta beraiek nigatik gauza bera esango balute? Ez lida-ke batere graziarik egingo. Ez. Argi dago.

Hala ere, barne-barnetik irten zitzaidan guztia, eta hori zerbaiten seinale da. Izan behar du. Nahi

eta nahi ez. Ez naiz ezertaz damu, azken finean erreflexionatzera bultzatu baininduen, korapiloa askatzen lagunduz. Aurreko ondorioak bezain erradikalak ez diren batzuk atera ditut oraingoan. Neurri batean orduan esandakoekin bat nator, agian errealitate gordinena beraiek islatzen dutelako. Malgutasun apur bat ere ez letorkidake txarto, ordea...

Banan-banan, puntuz puntu azalduko dizkizut iradokizunak. Uste dut hauekin ados egongo zarela. Har ezazu kontuan niretzat urrats zaila izan dela, pairatzen ari naizenaren erruaren parteaz jabetzea. Badakizu, bai ni, bai zu, bai Afrika puntan dagoen mutiko hori, burugogorrek gara; batzuk gehiago besteak baino. Baina bagara, geneetan geurekin daramagu burugogortasuna/burugogorkeria.

– Ez nuen bizitza den modura ikusten; alegia, nik bizitza beste era batera interpretatzen nuen. Ez dakit ulertuko nauzun... Bizitza zentzu okerrean bideratzen segitzeko zorian egon naiz, harik eta azkenean errealitatea (krudel samarra baina egiazkoa) ezagutu dudan arte.

– Bizitzari gauza gehiegi eskatzen nion... Bizitzarengandik gauza gehiago espero nuen... Bizitzak eman zidana/didana nik merezitakoa baino gutxiago izan dela iruditu zait... Neurekoiegia izan naiz, ez daukat barkamenik: neurekoia bizitzarekin, neurekoia jendearekin, neurekoia guztiarekin... (baita neure buruarekin ere).

– Huskeria oro arazo larri bihurtzen dut/bihurtu izan dut. Gauzak korapilatu eta konplikatu baino ez ditut egiten. Bukatu da! Hemendik aurrera datorkidana datorkidala, etorritako hori ez nahaspilatzen saiatuko naiz. Pertsona aldrebesa naiz gero!

– Pozik sentiaraz nazaketen gauza txikiak baloratzen hasi beharko nuke, gauza handiei hainbeste teko balioa eman ordez.

– Niganako estimua (autoestima deritzona) handitzeak lagunduko ninduke... Naizenaz (nahiz oraindik identitatea eraikitzen dihardudan) harro egotetik has ninteke... Ni osatzen nauten ezaugarriak goraipa nitzake (edo onartu, behintzat).

– Dauzkadan koalitateez, positiboek zein negatiboek, bizitzen ikasi beharra daukat. Perfektua den ezer ez dago ZORIONEZ. Nik akats asko izango dut, baina gainerakoek ere bai. Zer arraio! Adin konplexua da bizitzen ari garen hau. Edonork paira lezake ni sofritzen ari naizena. Ez naiz uste nuen bezain “kaka”! Besteak beste naiz: ez gutxiago, ezta gehiago ere.

– Jendeak ez du eman diezaiekedana hartu nahi? Bada, izorra daitezela! Eurak dira galtzen irteten diren bakarrak. Ni, behinik behin, ez. Noizbait, aurrerago hainbat aldiz esan izan dizudan lantxerik, nire ildo beretik dabiltzan lagunak ezagutuko ditut (zure modukoak, gure modukoak). Orduan, bizitzari buruz gaur arte barnean sustraitu zaizkidan pentsamenduak, desirak, usteak, zeintzuk oraingoz baztertu behar ditudan,

birragertuko dira ene baitan. Orduan bai! Orduan ni jaio izana eskertuko diot Jainkoari (so! Geldi, astotxo! Jainkorik baden ala ez jakin barik, nola eskertuko diozu berari? Arranopola! Agnostikoa naizen aldetik ezin ziarra nezake Jainkoaren existentzia. Beraz, beste batzuei emango dizkiet eskerak: hala nola, hona ekarri ninduten gurasoei. Hala eta guztiz, zein polito gelditzen zen esaldia Jainkoarena aipatuz...) Orduan ez! Orduan bizitzarekiko (izan) ditudan interpretazioak ez dira desegokiak izango.

– Nire adineko horiek ez dira ergelak, baina bai ezjakinak. “Ignoranteak”, besterik gabe. Zer egingo zaio? Deus ez. Beno, ahal den neurrian zeozer, ni zapaltzen jarrai dezaten gura ez baldin badut, bederen...

– BEREZIA izatearen dohaina eman zidan naturak. Atera diezaiodan ahal dudan etekinik handiena dohain horri! Senti nadin harro (bere mugen barruan beti ere) zorte horren jabetzaz!

– Ez nintzen neure buruaz errukiturik bizitzeko sortu. Hori horrela, penak albo batean laga eta jo dezadan aurrera tinko. Ikus dezatela zer nolakoa naizen! Ikas dezatela neuk ere trabarik zailenak, gaitzenak gaindi ditzakedala!

– Naizenaz, daukadanaz, sentiberatasunez baina gogor, ametsik amets baina errealitatean, isil-isil baina ez mututurik, aurrera jarraituko dut!!!

1997ko abenduaren 25a

***ALDAKETEN ESPEROAN...**

Kaleak argiz beteta daude.

Oporretan nago.

Gauzek berdintsu darraite. Ezer ez da aldatu.
Ezertxo ere ez.

Indartsuago nagoela pentsatuko zenuen igoal.
Bai, azken aldiz ordenagailu aurrean jarri eta zuri
hitz haiek zuzendu ondotik, neuk ere hobeto nen-
goela sinetsi nahi nuen. Eta sinetsi egin nuen. Eta
sinetsi egin dut. Eta sinesten jarraitu gura nuke.
Hala ere, merezi ote du sinestea?

Egunotan trankilxeago nabil. Neure buruarekin
GUSTURA nagoela esan nezake... Gustura. Pozik?
Ez dut uste. Zoriontsu? Ez, zoriontasuna urruti
dakusat oraindik.

Kokolotzat hartuko nauzu seguru asko. Berriz
lehengora bueltatu naizela pentsatuko duzu, behar
bada. Ez da horrela. Ez zaitetz mihina behar baino
arinago astintzen has.

Gogoratzen al duzu pasa den urtean zelan egon
nintzen? Goibel, oso goibel. Gabonek tristezia sorta-
razten didate. Ez zaizkit gustatzen. Familia giroan,
maitasunez inguraturik, kantu-kontari... Faltsukeria
nagusi! Gabonak ez dira GEZURRA besterik!

Aizu, ene oroimenak engainatzen ez baldin
banau, zeu ere ez zeunden zeure onenean iaz
abendu alde honetan...

Pasatuko zait.

Urte Berriarekin batera, hobeto ez, ONDO
egongo naiz.

Zin dagizut

1997ko abenduaren 31a

***ZURE DEIA ETA NIRE ZIRRARA...**

Harrituta utzi ninduen hilaren hogeita zortzian zure deia jaso izanak. Inuxente Eguna izaki, adarra jo asmoz hotsegin zenidalakoan egon nintzen... Odola borborka ipini zitzaidan nirekin egoteko irrikitan zaudela adierazi zenidanean. Nik ere zu ikusteko gogo izugarria daukat. Hainbeste denbora elkarrengandik hain aparte aurkitu ostean...

Telefonoz adierazi nizun moduan, azaroak hogeita bat zituela hasiz, barneak eskatzen didan bakoitzean eskribitzen ditudan gutun tankerako idazki xume hauek al bait lasterren igorriko dizkit. Zer edo zer kontatu nizun arren, eskutitzen bitartez ezagutuko duzu bizi dudana egoera.

Londonen zaude orain, zure ametsetako lekuan. (Azkenean lortu duzu desioa errealitate bihurtzea. Bejondeizula! Oso toki aproposa begitantzen zait. Gabonak igarotzeko, bene-benetan). Berdin dio (amorrurik apur bat eman zidan Ingalaterrara joan aurreko gauean Gabon zoriontsuak opatzeko (soilik) deitzeak, baina zure aldetik oso detaile ederra izan zela iruditzen zait momentu honetan. Hasieran madarikatu egin zintudan, Londonen baino neure alboan nahi baitzintudan...). Laster ikusiko dugu elkar. Handik itzulitakoan hirira zuzenean joatea pentsaturik baduzu, trankil: ni hemen naukazu. Gura duzunean hotsegin iezazu eta Tximistara joango gara kafetxo bat hartzera

(horretara bakarrik?), antzinako garaietan bezala (zenbat ordu igaro ote genituen taberna zulo hartan...).

Ea noiz zatozen hiritik herrira, motel, edonon zaudelarik *“kaxero”* hutsa izango baitzara beti! Ez zaitetz *“hiritar pijo”* bilaka, mesedez... Harro egon behar zenuke *“de pueblo”* izateaz!

Hasieran aipatutako gaiari dagokionez, argibide laburtxo bat: jakin ezazu besteok ere kartak atsegin ez jasotzen ditugula. Alegia, ez dauka zentzurik nik zuri nire berri eman eta zuk niri zeure konturik ez azaltzea. Ejem... Ejem...Zeharka niotsun hori. Mintza nadin argi eta garbi: idatzidazu behingoan!

Zuzentasunaren bideari jarraikiz, pare bat hitz: MILA ESKER guztiagatik.

Bihotzaren aginduei jaramon eginez, agur apal bat: biziki maite zaituen lagun baten partez, laster arte...

(Oharra: asko sentitzen dut bai gaurko bai abenduaren hogeita bosgarreneko berba jarioak hain motzak izana. Gabonetako tristeziak jota, kostatu egiten zait ezer esatea, edozer egiten hasi orduko, negarrari ematen baitiot. Horregatik, nahiz eta zuri kontatzeko gauza mordoa dudan, ez dut esplikazio sakon eta egokiak emateko gaitasunik. Azaroaren hogeita batean eta abenduaren hiruan esan nizkizunak hunkituago utziko zintuzten, noski. Ederto dakizun lez, Gabonak dira errudun. Beraien ondorioa da ezintasun hau. Gabonek ez didate uzten adierazten; Gabonengatik ez nago egon behar nukeen gisan; Gabonak medio aurki-

tzen naiz aurrera egiteko zailtasunez; Gabonek zorigaitza besterik ez dakarkidate. Gabonak, Gabonak eta Gabonak! Gero urteko egunik doto-reenak direla/izan behar dutela/luketela diote. Nondik nora?).

1998ko ostailaren 13a

***BILATU ETA BILATU... AZKENEAN AURKITU...**

Gauzak aldatu dira, guztiz aldatu gainera. Nire bizitzak ehun eta laurogei gradutako bira eman du. Itxaropena erdi galduta neukala, bat-batean, edo ia ia bat-batean, barrua berpiztu egin zait. Sinestezina iruditzen zait sentimen hau bizitzen dagoena ni naizela jakitea/frogatzea/baieztatzea. Sekula ez nuen halakorik sentitu... Jainko maitea (edo dena delakoa). Sentsazio gozo-gozo bat agertu da ene bihotzaren erdian, bihotzaren bihotzean, hain zuzen. Kili-kili egiten dit etengabe, eta kilima horiez gain babestu egiten nauela nabari dezaket. "Neuk zainduko zaitut; nirekin ezerk/inork ez dizu eraso egingo. Zatoz ene beso artera daukazun azal leun hori igurtz diezazudan..." esaten dit xuxurlakak, belarrietara xamurkiro zuzenduz. Ene bada... Azkenik aurkitu dut bila nenbilen hori (esaera hark ez zioen gezurrik; neu nintzen gezurra zela frogatu gura zuena, etsipenaren atzaparretan harrapaturik nengoenean).

Aldaketa nabarmena izan dut, inoiz ahantziko ez dudana aldaketa. Arima berri bat jaio da ene baitan,

ziur naiz. Bi berbarekin nahikoa dut guztia deskribatzeko: ZORIONTSU NAIZ! Entzun al duzu? Zoriontsu naiz! Zoriontsu naiz! Zoriontsu naiz! NORBAIT naiz, neure NORTASUN eta guzti. NI naiz, NAIZENA, IZENA eta IZANA dauzkan pertsona bat. POZIK nago. Oso pozik. IZAERA propioa dut. Bertuteak eta zaletasunak dauzkat. BEREZIA naiz. EZBERDINA naiz. Aberastasunez beteta nago. Iturri urtsua da nik hemen barrenean, bularraldean daukadana: ez diot agortzen/lehortzen lagako... Abilitateek eta ontasunak jazten naute. On gehiago dut txarra baino. Benetako bizitza hau baldin bada, MAITE DUT BIZITZA! Maite zaitut; maite dut itsasoa; maite ditut mendiak; maite zaituztet, ama, aita, Urko, Dorleta...; maite dut errespetua; MAITE DUT ASKATASUNA...

“NORTASUN HONEKIN, NI NAIZENA, IZENAZ ETA IZANAZ OSATURIK, NORBAIT NAIZELA ALDARRIKA DEZAKET, IZAERA EZBERDIN ETA BEREZIA POZTASUN OSOZ ERAKUTSIZ, BIZITZA MAITATUZ, BETI ERE ASKATASUNEAN”.

Duela hilabete batzuk konprentsihoa eskatzen nien ulertzen ez ninduten haiei. Nintzena/naizena izaten utz ziezadaten nahi nuen. Beharbada inoiz ez dute ni, zu eta gure erako jendea konprentziko/ezagutzeko ahaleginik burutuko. Ez dira horretarako gai, tamalez. Baina, nire kasua konplexuagoa dela konturatu naiz: nik konprentsihoa gainerakoei soilik eskatzen nien eta eskakizun hori egite-

rakoan gaizki nobilela ohartu naiz. Azken finean, pertsona bakar bati uler nintzan eskatzea nahikoa zen, eta nor zen ulertu behar ninduen hori? Ni neu. Ez zu, ez beste inor. Neure buruarekin neuzkan arazoez, zeintzuek bide guztiak oztopatzen baitzizkidaten, eta beraiek onartzearen aurkako jarrerak, milaka buruhauste sortarazi dizkidate. Behin problema horri buelta emanda, naizen hau ulertzea lortu dut. Horrek belar eskasak kentzen lagundu dit. Bidea luzea izan da, baina merezi izan du; zoriontasunaren gailurrera heldu naiz azkenean.

Bizitza norberaren ezagutzan datza. Eta ezagutzea ulertzea da. Eta norbera den bezala onartuz/ulertuz, besteak ere hobeto konpreni daitezke. Egia da gutariko bakoitza gure espezieko adibide errepikaezin eta bakarra dela, baina badaude ezauzgarri batzuk denok konpartitzen ditugunak. Horien laguntzaz zoriontasuna errazago erdiets daiteke/dezakegu/dezaket.

Sentimendu hauen jabe naizela ospatu behar dut. Neuk bakarrik, ordea: bakar-bakarrik, inor barik. Merezi dut. Ondo merezita. Primeran etorriko zait zoriontasunaren botilatik tragoska batzuk hartuz, bertan mozkortzea. Dagoeneko pentsatua dut ospakizuna noiz, non eta nola egingo dudana.

Eskutitz hauek guztiak esku artera iristen zaizkizunerako ni ez naiz hemen aurkituko jada. Beste

nonbait egongo naiz, ezpainetan irriño ezti batez, behin batean nolakoa izan nintzen oroitzuz. Orain naizena izango naiz leku horretan ere. Zutaz pentsatzen segituko dut, sentiberatasun beraz haizearen bitartez maitasuna bidaliz; hoberena opa dizut, laztana. Ez zaitez alda.

Honako hau agur antzeko zerbait dela esan liteke... Baina ez da. Ni zoriontasunaz gozatzeko asmoz noa noan toki horretara. Hau ez da amore ematearen ondorioa; ez da mendekua; ez da inor izorratzeko guraria. Hau bihotzaren aginduak obeditzea da, besterik gabe.

Mezua ailegatu zaizula uste dut. Hala izan bedi.